



PACTOS
POR LOS
CUIDADOS
EN NAVARRA
ZAINKETEN
ALDEKO
ITUNAK
NAFARROAN

LG/DL NA 980-2022



Instituto Navarro
para la Igualdad
Nafarroako
Berdintzaunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



PACTOS POR LOS
CUIDADOS EN NAVARRA
ZAINKETEN ALDEKO
ITUNAK NAFARROAN

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO ITUNAREN PRINTZIPIO ETA ASMOEN ADIERAZPENA
3. ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO ITUNEAN PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEAK
4. ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO ITUNAREN HELBURUAK
5. ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO ITUNAREN AKORDIOAK
 - 1.1 Itunaren tenporalizazioa
 - 1.2 Itunaren egiturak
 - 1.3 Erabakiak hartzea
 - 1.4 Prestakuntzen aldizkakotasuna
 - 1.5 Itunaren jarraipena eta ebaluazioa
 - 1.6 Zaintzaren aldeko Tokiko Itunarekiko atxikimenduak, sinatu eta abian jarri ondoren
 - 1.7 Zaintzaren aldeko tokiko itunaren bajak
6. ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO ITUNAREN SINATZEKO ORRIA
7. URTEKO LAN-PROGRAMA. 2024. URTEA

1. SARRERA

Nafarroako Zainketen aldeko Itunak programa bat da Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatua emakumeen eta gizonen arteko politika publikoen esparruan, Nafarroako Foru Komunitateak eta bertako toki erakundeek zainketen alde duten konpromisoa gauzatze aldera, funtsezko alderdia baita bizitzaren jasangarritasunerako, gizartearekin koordinatuta eta hitz eginez, eta berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzeko.

Nafarroako Berdintasunerako Institutua 2005etik ari da garatzen *Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunen Programa*. Funtsezkoa da esperientzia hori aintzat hartzea, zeinak hainbat ekintza bideratu baititu Nafarroan sinatutako 39 itunen esparruan, eta horiek dira, hain zuzen, egungo Zainketen aldeko Itunen Programaren oinarri.

Orduan kontziliazioaz hitz egin genuen, eta gaur egun, berriz, zainketek bideratzen eta gidatzen dituzte berdintasunerako agenda eta politikak. Gainera, pandemiak argi utzi du oraindik zainketa lanen banaketa ez dela, inolaz ere, ekitatiboa eta berdintasunezkoa. Emakumeek dute, gehienetan, ardura hori, eta haien bizitza pertsonalean, familia bizitzan eta lan bizitzan eragiten du.

Lanaren sexuaren araberako banaketa indarrean dago oraindik, ohiko rol maskulino eta femeninoekin lotutako aurreiritzi eta estereotipoek eusten baitiote, eta emakumeak zaintzara behartzen ditu, beren ugaltze ahalmenaren berezko hedapena balitz bezala. Horri gehitzen zaizkio Nafarroako errealitatea eta tradizio sozial, kultural eta erlij iosoa, era berean emakumei egozten dietenak zainketen arduraren zama.

Argi eta garbi, errealitatea bestelakoa da: "zainketen krisia" identifi katu dugu jada, eta kontziliazio, erantzunkidetasun eta gisako kontzeptuetatik harago joan beharra dago, agerikoa baita egungo jendarteetan arazoak daudela bizitzen iraunkortasuna bermatzeko zainketa lanen banaketan eta antolaketan.

Zainketen parte dira kontziliazioa eta horren praktika eta proposamen guztiak, baita erantzunkidetasuna ere. Baina, nahiz eta hobetu diren eta aurrera egitea ahalbidetzen duten, ez diote irtenbiderik eskaintzen zainketen arazoari, ezta horrek pertsonen bizitzetan dituen ondorioei ere, benetako errealitatea oso konplexua baita.

Egun, zainketen defizit zita larriagotu egiten da hainbat fenomeno soziodemografi koren arteko elkarreraginaren ondorioz: emakumeek lan-merkatuan duten parte hartzea handitzea, biztanleriaren zahartze orokorra, lehen hilgarriak ziren gaixotasunen kronifi kazioa, jaiotza tasa txikia, familien tamaina murriztea, bizikidetz- eta familia-loturen aldakortasuna eta ezegonkortasuna, migrazio globalen feminizazioa eta zainketen merkantilizazioa (zainketak ordaindu ahal dituztenen eskura soilik daude).

Pentsamendu kritikoak eta ekintza politiko feministak zainketen defizit zita agenda politikoaren erdigunean jarri dute. Sexuen arteko berdintasuna lortzeko, herritartasun berri bat eta bizikidetasun eredu bat eratu behar dira gauza izanen direnak zainketak unibertsalizatzeko eremu publikoan, pertsona guztien erantzukizun saihestezin

II. MULTZOA

PRINTZIPIOEN ETA ASMOEN

ADIERAZPENA

7. Funtsezko bidetzat jotzen dugu, zainketa sistemaren eredu aldaketarantz eta, horrenbestez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun egiazko eta eraginkorrerantz aurrera egiteko, sektoreen arteko itun bat sustatzea:
- Zainketa lanetan gizonen parte hartzea sustatuko duena.
 - Haur hezkuntzako zerbitzuak unibertsal bilakatuko dituena.
 - Adineko pertsonentzako arreta zerbitzuak unibertsal bilakatuko dituena.
 - Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta unibertsalizatu eta profesionalizatuko duena.
 - Laneko ordutegi motzago eta arrazionalagoak ezarriko dituena.
 - Tranpa sexista gainditu eta orekatua izanen dena emakumeentzat eta gizonentzat.
 - Etxeko lanak duin bihurtu eta behar bezala ordainduko dituena.
 - Komunitateko eragileen iritzia eta esperientzia aintzat hartuko duena.
 - Auzotasun oneko harremanak eta hiri atseginak sustatuko dituena.
 - Ingurua eta natura baliabideak zaindu eta elikatuko dituena.
8. Zainketen krisia konpondu ahal izateko, uste dugu zainketak modu bidezkoan banatu behar direla, alderdi guztiek parte hartuta. Pertsonen eskubideetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta belaunaldien arteko elkartasunean oinarritutako ereduak da Zainketen aldeko Tokiko Itun honen helburua, baita zainketan, etxeko lanetan eta lanaren banaketa orekatu eta bidezkoan gizonen erantzunkidetasuna, konpromisoa eta inplikazioa oinarri izanen duen sistema lortzea ere.
9. Zainketari buruzko politika publikoak eraikitzeke, zainketa eta emakumeentzako ekitate politikak ezartzeko Administrazioaren ahalegin instituzionala beharrezkoa den arren, prozesua ez da burutuko herritarren eskutik egiten ez bada; hots, gizarteko hainbat eragileren arteko, genero eta belaunaldien arteko erantzunkidetasun eta elkarrenganako eta elkarrekiko konpromiso batetik. Zainketen aldeko tokiko Itunen garrantzi metodologikoa horretan datza.

Zainketen aldeko Tokiko Itunaren printzipio gidariak honako hauek dira:

1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN EGIAZKO ETA ERAGINKORRA
2. UNIBERTSALIZATZE PROGRESIBOA
3. ELKARREKIKOTASUNA
4. ZEHARKAKOTASUNA
5. INTERSEKZIONALITATEA
6. PARTE HARTZEA
7. DUINTASUNA
8. SUSTRAIAK/PARTAIDE IZATEA

III. MULTZOA

ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO

ITUNEAN PARTE HARTZEN DUTEN

ERAKUNDEAK

IV. MULTZOA

ANUE, ATETZ, BASABURUA, LANTZ, ODIETA ETA
ULTZAMAKO ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO
ITUNAREN HELBURUAK

V. MULTZOA

ANUE, ATETZ, BASABURUA, LANTZ, ODIETA ETA
ULTZAMAKO ZAINKETEN ALDEKO TOKIKO
ITUNAREN AKORDIOAK

Kideak	<ul style="list-style-type: none"> - Lehendakaritza - Berdintasun-politikez arduratzen den zinegotzigoa
---------------	---

Itunaren Koordinazio Teknikoa

Kideak	Mankomunitateko berdintasun-teknikaria
---------------	--

5.3 Erabakiak hartzea

Erabaki guztiak entitate sinatzaileen artean adostuko dira, ahal dela. Entitate bakoitzak hizpidea eta boto bat izanen du. Adostasunik lortzen ez bada, botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Tokiko Itunaren Zuzendaritzak kalitatezko botoa izanen du.

5.4 Prestakuntzen aldizkakotasuna

A. Zainketen aldeko Tokiko Itunari atxikitzeko hasierako prestakuntza

Aldizkakotasuna	Tokiko Ituna sinatu aurretik edo ondoren
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Zainketak - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna - Itunen prestaketa eta funtzionamendua

B. Tarteko prestakuntza, Urteko Lan Programa egiteko

Aldizkakotasuna	Urteko Lan Programa onartu edo abian jarri aurreko bilera
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Zainketak - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna - Itun barruko ekintzei eta funtzionamenduari buruzko prestakuntza praktikoa. - Jardunbide onak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaz eta zainketez. - Planifikazioa genero ikuspegiarekin.

C. Ituna garatzeko etengabeko prestakuntza

Aldizkakotasuna	Ituna garatu bitartean egindako saioa.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> - Zainketak - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna - Itunak: garapena - Antolaketa eta kudeaketa genero ikuspegiarekin - Jardunbide onak gizon eta emakumeen arteko berdintasunaz eta zainketez - Genero ikuspegiarekin esku hartzea

5.5 Itunaren jarraipena eta ebaluazioa

VI. MULTZOA

SINATZEKO ORRIA

Basaburuako Udala	Santos Etxegia Oronoz	
Lantzko Udala	Beni Irurita Loyarte	
Odietako Udala	Carolina Mazanza Montalvo	
Ultzamako Udala	Jesús María Larretxea Lazkano	
Larraitzarko Ikastetxea	Luis Angel Lizarribar Altuna	
Oihanzabal Eskola	Maite Rodriguez Tellechea	
Asociación Denok Bat Elkartea	Benito Alberro Goñi	
Basaburuko Basandereok Elkartea	Inmaculada Fernandez Vicuña	

7. URTEKO LAN PROGRAMA

- 1.** Esku-hartze ardatzak
- 2.** Helburuak
- 3.** Ekintza zehatzak esku-hartze ardatzei dagokienez
- 4.** Ekintzen deskribapena
- 5.** Parte hartzaileak eta pertsona onuradunak
- 6.** Giza baliabideak, baliabide materialak eta aurrekontua
- 7.** Urteko Lan Programako ekintzen balidazioa
- 8.** Eginkizunen, atazen eta arduren banaketa entitate parte hartzaileen artean
- 9.** Urteko Lan Programa sinatzeko dokumentua